

eraikikasi

eraikikasi

1. erraztu

2. elkarlanean aritu

3. ez baztertu

4. demokrazian sakondu

eraikikasi

ez baztertu
ez baztertu

web orriaren helbide berria
www.elkarri.org

elkarri lagundu

nahi badiozu, ondorengo bide hauek erabil ditzakezu



•elkarriren dirulaguntzailea izan nahi dut (14 kuota urtean) Diru-laguntzaile guztiek dohainik jasoko dituzte elkarri eta elkarrikasi aldizkariak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	1.500 pta.	2.000 pta.	5.000 pta.	10.000 pta.
•Aportazio bakarra egin nahi dut	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	10.000 pta.	25.000 pta.	50.000 pta.	100.000 pta. pta.
•elkarriren ekimenetan lagundu nahiko nuke	<input type="checkbox"/>			
	bai			
•Nire etxean jaso nahi ditut elkarri eta elkarrikasi aldizkariak	<input type="checkbox"/>	4.000 pta. (urteko kuota)	<input type="checkbox"/>	1.000 pta. (hiruhilabeteko kuota)

izen-abizenak _____ N.A. _____ tfnoa. _____

helbidea _____ herria _____

herrialdea _____ kode postala _____

banku edo aurrezki kutxa _____

kontu zenbakia(20 digito)

gipuzkoa
madril etorbidea, 5
20011 donostia
tf. 943 45 93 75 fax. 943 45 07 58
e-mail: donostia@elkarri.org

nafarroa
tutera kalea, 18 - 2. G
31003 iruña
tf. 948 24 84 00 fax. 948 24 92 88
e-mail: iruña@elkarri.org

araba
estibalitz etorbidea 2 - 1. - 5. bulegoa
01003 gasteiz
tf. 945 25 61 76 fax. 945 28 00 97
e-mail: gasteiz@elkarri.org

bizkaia
arenal, 5 - SVRNE 209. bulegoa
48005 bilbo
tf. 94 479 03 16 fax. 94 415 80 03
e-mail: bilbo@elkarri.org

aurkezpena

Eraikikasi proiektuak aurrera darrai. «ez baztertu» izeneko aldizkari hau bildumaren hirugarren alea da. Abenduan laugarrena argitaratuko da: «demokrazian sakondu». Titulu hauek (*erraztu, elkarlanean aritu, ez baztertu eta demokrazian sakondu*) ez dira kasualitatez aukeratu, hausnarketa bidea bultzatzeko asmoz baizik. Eta hain zuzen ere, hausnarketa hori lagungarri izan dakiguke galdera bikoitz bati erantzuna emateko: «zer da bake-prozesua eta zein da "nire-gure" papera prozesu horretan?».

Uztailaren hasieran, elkarrik «erraztu» izeneko lehen alean zeuden ekarpen orrietako erantzunen emaitzei buruzko txostena aurkeztu zuen. Erantzundako 857 galdera orri jaso ziren, eta guztira 7.125 ekarpen zituzten. Txostena, halaber, alderdi politiko guztiei bidali zitzairen. Eraikikasi kanpainak, horrela, bake-prozesuan informazioa, hausnarketa eta gizartearen partehartzea eragiten duen ibilbide osoa bultzatu du.

Hirugarren aldizkari honen sarrera moduan, eta aurreko aldizkarien edukien laburpen gisa, honako ideiak azpimarratuko ditugu:

- ▶▶ •Bake-prozesua elkarrizketa eta distentsiorako unea da. Eta une horretan, hain zuzen ere, gatazkaren giltzarri izan diren arazoak konpontzeko bi elementu sortu, gertatu eta garatzen dira aldi berean: a) distentsio, indarkeriarik eza eta humanizazio unea eta b) bazterketarik gabeko alderdiantzeko mahai edo foroa alderdi politikoaren arteko elkarrizketa, negoziazio eta akordioarako.
- ▶▶ •Erraztea adiskidetzearen kultura bultzatzea da. Elkarrizketa eta distentsioa bultzatuz eta horretan jardunez erraztu eta parte hartzen da. Hori gure ingurunean bertan jar dezakegu praktikan; eta baita iritziak emanez ere, hau da, politika munduan elkarrizketa eta distentsio proposamenak eginez.
- ▶▶ •Bake-prozesu batek oinarritzko akordioak lortzeko giro aproposa behar du. *Elkarlanean aritzea* akordio horiek lortzeko beharrezkoa den jarrera da. Elkarlanean aritzea «helburu bat bera lortzeko beste norbaitekin edo norbaitzuekin jardutea da». Jarrera kontrajarrien bat etortzeak atzematea eta azpimarratzea dakar.
- ▶▶ •Elkarlanean aritzeko garrantzitsua da arrazoi guztia geurea dela zalantzan jartzea, eta «besteak» ere arrazoi izan dezakeela pentsatzea. Arazo baten ezagutza osoa dugula uste ohi dugu, baina «besteak» ere guretzat ezezagunak diren ikuspuntuak erakusten dizkigute. Bake-prozesu batean elkarlanean aritzeak denon arteko irtenbidea bilatzea dakar, hain zuzen ere, guretzat ez ezik beste muturreko arerioentzat ere onuragarria izango den irtenbidea.

bake proz

zer esan nahi du «ez baztertu» irizpideak bake-prozesuan

1. Ezinbesteko baldintza

Bake-prozesu batean desberdinak direnen artean distentsioa eta elkarrizketa izan daitezke eta elkarlanean jardun arren, gerta daiteke hori guztia, agian, nahikoa ez izatea. Elkarbizitza soziopolitiko baketsu, integratu eta demokratikorako bidean beharrezkoa da, gainera, beste irizpide bat ezartzea: ez baztertzea. Irizpide hori egokia edo interesgarria ez ezik, ezinbesteko baldintza ere bada.

2. Esanahi garbia

Bake-prozesu baterako, «baztertzea» sentsibiltate politikoren bat edo batzuk kanpoan utzi, ez onartu, alde batera utzi, baztertu edo aintzat ez hartzea da. «Ez baztertu» edo «barneratzeak», ordea, bake-prozesuak berreraiki nahi duen elkarbizitzako ingurunean dauden tradizio politiko guztiak parte hartzen lagundu, integratu edo kontuan hartzea esan nahi du.

3. Errealitate irizpidea

Ez baztertze kontzeptua bat dator gure herriak aniztasuna aitortzeko duen gaitasunarekin. Maiz gertatzen da honako hau: Egungo errealitate sozio-politikoren bat kontuan hartzen ez duen irtenbideren bat irudikatzea. Esaterako, etorkizuna «Españolismoa», «Independentismoa» edota eskuina kontuan hartu gabe irudikatzea. Batzuek «euren» herrian pentsatzen dute Gipuzkoan, Bizkaiko hainbat gunetan edota hiri handietan dauden sentsibiltateetan erreparatu gabe. Beste batzuek ez dute kontuan hartzen Arabak edo Ezkerraldeak duten egoera, oso desberdina izan arren. Batzuek ahaztu egiten dute Nafarroako hegoaldeko errealitatea, eta beste batzuek ez dute gogoan izaten Nafarroako iparraldekoa; eta badira Iparraldeko euskaldunik izango ez balitz bezala jarduten dutenak ere. Sentsibiltateren bat baztertzen duen irtenbide prozesua ez da batere sendoa. Egokiena elkarbizitza politikoa den-denak bilduko dituen oinarritzko kontsentsu batzuetan oinarritzea da. Eta horretarako, beharrezkoa da abiapuntutzat «errealitate irizpidea» hartzea, hain zuzen ere, geure egiazko herrialdean kokatuko gaituena, eta ez izan nahi genukeen herrialde fiktizioan.

4. Abiapuntu berria

«Ez baztertzeak» esan nahi du etorkizuna eta elkarbizitzaren berreraikuntza guztiguztiekin —zentzu politiko, sozial eta geografikoan— egingo dela sinestea. Irtenbide prozesua antolatzeke lehenengo pausua gaur egun denek onartuko duten abiapuntua identifikatzea da, hau da, denak barnean izateko helburua duen hasierako eta oinarritzko kontsentsua. Bake-prozesuak irtenbide fasean sartzen dira oinarri-oinarritzkoa den akordio gune hori zehazten denean. Hasierako kontsentsu horren ezaugarria hau da: alderdi guztien bat etortzea eragiten duela, bat etortze hori minimoa bada ere. Eta hori da elkarrekin lortutako irtenbide prozesuari hasiera emateko oinarria.

5. Metodo barneratzailea

Denak barnean hartzeko borondatea ez ezik, tresna erabilgarri eta bideragarriak behar dira. Hori lortzeko modurik unibertsalena eta garbiena elkarrizketa eta negoziazio gune bat sortzea da, izan ere sentsibiltate eta tradizio politiko guztien ordezkariak izango dituen gunea. Alderdien foroa edo mahaiak (edo mahaiak) denak barnean sartzeko beharrezkoa den tresna hori izan daiteke, eta, aldi berean, bazterketarik egingo ez duen bake-prozesua bermatu eta egituratuko duen muina.



esuari buruzko hamar eduki

hamar eduki

«ez baztertze» jarrerak zer dakarren berarekin

6. Prest egotea

Edozein gatazkatan geure buruari galdetu behar diogu ea onartzen dugun denak ontzi berean gaudela, ontzia bat bakarra dela eta denak ontzian bertan geratu behar dugua. Arazoak ditugu, baina denok ados gaude irtenbidea ez dela bidaiarien erdia kareletik botatzea. Euskal Herria bakarra da, «bizilagunen elkarte» bakarra dago, eta hor bizitzen jarraitu behar dugu. Gauza ez da, esaterako, ideologia bereko guztiek ontzia uztea. Ontzi bat bera dugu eta bat bera izaten jarraituko dugu. Hori da gure jarrera. Hona hemen lehenengo elementu komuna.

7. Kokapena

Irtenbiderako gunea nola ikusten dugun ere aztertu behar dugu. Normalean, elkarren aurka dauden taldeak ikusten ditugu. Alderdietako bakoitza mahaiaren parez pare dagoela irudikatzen dugu. Arazoa «parean» ditugun horiek dira, horiek dute errua. Irudikatu dezagun beste kokapen bat: denak mahaiaren alde berean eserita gaude eta arazoa mahai gainean jarriko dugu. Arazoa zertxobait urrunagotik aztertuko dugu, era despertsonalizatuagoan, objetibitate handiagoz; eta ziur izanez arazo bera eta behar bera dugula: denok dugu gatazka konpontzeko beharra.

8. Galdera bat

Oso garrantzitsua da honako hausnarketa hau egitea: zein da argitu nahi dugun gakoa? Zein galderari bilatu nahi diogu erantzuna? Ontzi honetan txopako eta brankako marinelen arteko gatazka dugu, nabigatzen jarraitzeko eta ez hondoratzeko irtenbidea bilatu behar dugu. Ez du axola zein dagoen txopan eta zein brankan, ezta nork ordezkatzeko duen ere. Arazoa hor dago, mahai gainean. Gu gara, gu guztiok, mahaiaren alde honetatik arazoari irtenbidea eman behar diogunak. Funtsezko galdera ez da «non dago arazoa eta nor da eruduna?» baizik eta «non dago irtenbidea eta nola lor dezakegu denon artean?».

9. Prozesu bat

Irtenbidea bilatzeko prozesuak ezaugarri batzuk ditu. Prozesuan parte hartzen duten guztiek ekarpen interesgarriren bat dute egiteko. Badago niretzat ezin hobea den irtenbidea baino hoberik. Irtenbide hori bera da, baina gainerakoek jarritako ñabardura eta ekarpenekin. Nire jarreraren beste muturreko jarreraren akordio gune txikiak aurki ditzaket, nirearekin zati batean bateragarriak diren guneak. Berak egia, arrazoi eta legitimitate zatia badu, eta hori ezagutzea beharrezkoa da. Beste horren larrian jarri behar da nola pentsatzen duen jakiteko eta elkarrekin bizi dugun gatazka nola bizi duen ongi ezagutzeko. Eta baita arazoaren konplexutasunaren ezagutza hobea izateko ere. Prozesuak elkarriketa prozesua izan behar du; baina baita, eta batez ere, besteari entzuteko tresna ere.

10. Irtenbide bat

Arazoak (dena delakoak) irtenbidea baduela uste dugu. Gurea baino larriagoak eta konplexuagoak diren arazoek aurkitu dute irtenbidea. Baina, nola irudikatzen dugu irtenbidea? «Nik irabazi eta zuk galdu» edo «zuk irabazi eta nik galdu» moduko irtenbideak, gerora, ez dira irtenbide onak. Askoz egokiagoa da irtenbidea «nik irabazi, zuk irabazi» irizpidera bideratzea. Denek irabaziko duten irtenbidea bilatzea. Zaila badirudi ere —eta benetan zaila da— hori da lor dezakegun irtenbidea: etorkizunean bideragarria eta eraginkorra izateko bermerik handiena duena baita.



adibidea

Elkarrengandik urrutien dauden sentsibilitateak hurbiltzeko eta integratzeko gaitasuna da bake-prozesuek duten arazorik handienetako bat. Eta hain zuzen ere gai horrekin oso lotuta daude prozesuaren aurrera eta atzerapausuak. Palestinako bake-prozesua da horren adibideetako bat; hain zuzen ere, hango bake-prozesuan aurrera edo atzera emandako urrats bakoitzak lotura estua du barneratze edo bazterketa politika edo proposamenak nagusitzearekin.

Osagai honek ez du dena esplikatzen, baina ez baztertzea behar-beharrezko baldintza da gizartearen elkarbizitza soziopolitikoari eragiten dion irtenbide prozesu baterako. Hego Afrikan edo Ipar Irlandan ez zen ikusten irtenbide iraunkor eta sendorako aukerarik, harik eta integratutako elkarbizitza baten formulak azterten hasi ziren arte. Bi kasu hauetan azpimarratzekoak dira gehiengo eta gutxiengoaren dinamikak gainditzeko eta inor kanpoan utzi gabe denak barneratuko zituen marko bat aurkitzeko ahaleginak. Ez baztertzeko (barneratzeko) esperientzia eta metodologiei dagokienez, irakatsirik interesgarriena Ipar Irlandako bake-prozesuaren adibidetik atera dezakegu.

Denok ikusi ahal izan dugu bake-prozesu hark aldian-aldian zailtasun handiko uneak igarotzen dituela. Deigarria da oso, gurean gertatzen denarekin alderatuta batez ere, agertzen den oztopo bakoitzari sistematikoki eta berehala erantzuten zaiola oso metodo zehatz baten bidez: dagokien guztiak bildu egiten dira (eta ia beti gazteluren batean giltzaperatzen dituzte euren buruak) berriro elkarriketari ekiteko. Negoziazio metodo berezia da: etengabea, alderdianitza eta bazterketarik eragiten ez duena. Ipar Irlandako bake-prozesuan baztertu gabe gelditzeko ardatz metodologikoa alderdien mahaia edo foroa da.

bakarka zein taldeka gogoeta egiteko gidoia

Eduki teoriko horiek sakondu nahi dituenak behean du gai honi buruzko hausnarketa egiteko edo talde lana pixka bat antolatzeke gidoi orientagarri bat.

- Orain arte irakurri dituzun ideia guztietatik, zein gogoratzen duzu ongien edota zein izan da zure ustez iritzirik interesgarriena? Talde lanean lehen inpresio hori elkartruka daiteke eta zergatia esplikatzen saiatu.

- Saia zaitez zure irizirik urrunen dauden haien jarrera irudikatzen. Talde lan baterako bada, paperak banatu eta hasi eztabaidatzen. Bakoitzak dagokion rola ahalik eta leialen antzestu behar du ordezkatzeko ari den sentsibilitateak nola pentsatzen duen eta zer sentitzen duen barneratu eta adieraziz.

- Imajina ezazu eztabaida bera bi aldiz. Taldean ari bazarete, praktikan jar dezakezue. Lehenengo aldian galdera honen inguruan antolatu eztabaida: «non dago arazoa eta nor da erruduna». Bigarren aldian ere «eztabaida bera errepikatu, baina orain argitu beharrekua hau izango da: zein da irtenbidea eta nola lor dezakegu guztion artean». Konpara itzazue esperientzia bakoitzeko emaitzak.

- Zuregandik hurbil izan eta ongi ezagutzen duzun gatazka batean pentsa ezazu. Azter ezazu irtenbideak bilatzerakoan zer eredu izan den nagusi: «nik irabazi eta zuk galdu», «zuk irabazi eta nik galdu», «nik galdu eta zuk galdu» edo «nik irabazi, zuk irabazi». Irtenbidea «nik irabazi, zuk irabazi» motakoa ez bada izan, saia zaitez eredu horrekin bat egiten duen irtenbideren bat imajinatzen.

- Saia zaitez esperientzia horietatik ondorio batzuk atera eta idazten. Talde lana bada, bateratu. Ondorioak interesgarriak direla uste baduzu, aukera duzun lehenengoan erabil ditzakezu eta ondoren emaitzak eba-luatu.

Hurrengo Eraikikiaren edukien aurrerapena «demokrazian sakondu»: gatazka politiko larri batean irtenbidea bilatzeko fasean sartzen garenean, jarrerarik muturrekoena dutenekin oinarri-oinarriko gauza batean egon gaitzke ados: demokrazian sakontzeko irizpidean. Irizpide hori, orokorra, ambigua edo interpretazio anitzekoa ere izan daiteke; baina hala ere, berre-raikuntzarako lehenengo topagunea dugu.

